

Zangoza / 2026

KULTUR AGENDA

ekaina



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



AYUNTAMIENTO DE VALLESANTORO
PALACIO VALLESANTORO
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea


Kultur Zerbitzuaren arreta ordutegia: astelehenetan 09:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa aretoko ordutegia: asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika, 2. **Telefonoa:** 948 870 251.

Kultur agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultur agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea hemen kontsultatu:

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

 **Kultur agenda orain whatsapp bidez ere bai.**

Jaso ezazu kultur jardueri buruzko informazioa zuzenean zure mugikorrean, gure hedapen-kanal berriari jarraituz.

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: maiatzaren ekainaren 2tik aurrera Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Tel.:** 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoa (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Txartel-leihatila Saioa hasi baino bost minutu lehenago itxiko da. Tel.:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte Txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean, sarrera hor bertan edo internet bidez erosi bada ere.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoa badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunaz hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoa mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultur Zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora. Txartel-leihatilan ere adieraz daiteke erosketa egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea hemen kontsulta dezakezu: www.sanguesa.es

KULTUR AGENDA

ekaina



- 1 Al Erakusketa. «Desde el interior» (ekainaren 21a bitarte) 4. Orr.
 2 As
 3 Az Zuretako antzerkia. «El no ya lo tienes» 6. Orr.
 4 Og Banda txikiaren eta eskolako bandaren kontzertua 7. Orr.
 5 Os
 6 La Euskararen eguna 7. Orr.
7 Ig

- 8 Al
 9 As
 10 Az Zuretako antzerkia. «Euskaldungak» 6. Orr.
 11 Og Fanfarrearen, orkestraren eta eskolako koruen kontzertua 7. Orr.
 12 Os Erakusketa. «Carlismo frente a franquismo.
 50 años de unidad contra la dictadura»
 (ekainaren 28a bitarte) 4. Orr.
 Os Eskolako brass band-en kontzertua 7. Orr.
 13 La «Romeo eta Julieta» Opera zuzeneko emanaldia 5. Orr.
14 Ig

- 15 Al
 16 As
 17 Az Eskolako Metalen taldeen kontzertua 7. Orr.
 18 Og Eskolako Konboen kontzertua 7. Orr.
 19 Os Dantza. Dantza Tailerretako ikasleen erakustaldia 5. Orr.
 20 La
21 Ig

- 22 Al
 23 As Eskolako Big band-en kontzertua 7. Orr.
 24 Az
 25 Og
 26 Os
 27 La Zangozako udal banda elkartearen udako kontzertua 8. Orr.
 La «Donejakue Bidearen Eguna Zangozan» 8. Orr.
28 Ig

- 29 Al
 30 As

Azaleko irudia: «El no ya lo tienes». Iluna Teatro

Erakusketak



«Desde el interior»

PINTURA ETA SORKUNTZA ARTISTIKOKO TAILERRA

EKAINAREN 21 ERA BITARTE

Delia Baquero, Conchi Leoz, Conchi Monreal, Pili Idiazabal, Maite Idiazabal, Pili Lorenzo, Juana M^a Crespo, Nerea Basterra eta Adriana Echeverri artistek eginiko lanak aurkezten ditugu.

Erakusketa artisten sorkuntza eta hazkunde artistikoko prozesu esperimentaletan murgiltzen da, oso obra pertsonalak proposatzen dituztenak, teknika eta garapen libreekin.

Lanek eremu sortzaile berriak aztertzen dituzte, eta pertsonaren baitarekin bat egiten duten begiradak proposatzen dizkigute. Mikel Belascoain artistak emanen du tailerra, zeinak esperimentazio askeko prozesuen garapena sustatzen baitu.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko Erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuia.



«Carlismo frente a franquismo.

50 años de unidad contra la dictadura»

EKAINAREN 12TIK 28RA

Hilabete hauetan, gure historia hurbilean garrantzitsuak izan diren gertaeren oroitzapena dela eta, «Karlismoa frankismoaren aurrean. 50 urteko batasuna diktaduraren aurka» erakusketak karlismoa erregimen frankistaren aurka zegoela jasotzen du, hala nola Francoren heriotza bera, oposizio bateratuko erakunde nagusien eraketa, 1976an Gasteizen eta Jurramendin izandako gertakari tragikoak, Arias Navarro Gobernuaren proiektu erreformistaren amaiera eta Trantsizioaren hasiera.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxeko bigarren solairuko Erakusketa aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuia.



Erakusketa aretoko bisita-ordutegia: Asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte eszenikoak karmengo entzunaretoan



OPERA ZUZENKO EMANALDIA

«Errege Antzokiko operaren astea» egitaraua
«Romeo eta Julieta»

ERREGE ANTZOKIKO KORU ETA ORKESTRA
TITULARRAK

LARUNBATEAN, EKAINAK 13

Musika: Charles Gounod; **Musika-zuzendaritza:** Carlo Rizzi; **Eszena-zuzendaritza:** Thomas Jolly.
Javier Camarena, Romeo eta Nadine Serra, Julieta.
Opera bost ekitalditan.

Madrilgo Errege Antzokiaren helburua opera bultzatzea da, bai eta herritarrei hurbiltzea ere. Oraingoan, Errege Antzokiak Operaren Astearen edizio berri bat ospatuko du, zuzeneko emanaldi batekin, eta Zangozak ekimen horrekin bat eginen du, publikoari goi mailako musika proposamen batez gozatzeko aukera eskainiz.

Ordua: 19:30.

Iraupena: 3 ordu eta 10 minutu atsedenaldiarekin.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Sarrera doan edukiera bete arte, gonbidapenak aurrez hartuta. Sarrerak Kultur Etxean hartu ahal izanen dira asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sangesacultura.es eta www.sangesa.es webguneetan



DANTZA

Zangozako Dantza Tailerretako ikasleen erakustaldia **FUERADELEJE** konpainiak zuzenduta

OSTIRALEAN, EKAINAK 19

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrera doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Sarrerak Kultur Etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta, www.sangesacultura.es eta www.sangesa.es webguneetan.



Zuretako antzerkia



«El no ya lo tienes (Historias de un actor de provincias)»

ILUNA TEATRO

ASTEAZKENEAN, EKAINAK 3

Antzerkilaria: Miguel Goikoetxandia.

Nire izena Miguel da eta aktorea naiz. Probintzietako aktore bat, Nafarroakoa, txar horietako bat. Saririk jasotzen ez duten horietakoak, ezagunak ez direnak. Bizirik irauteko denetarik egin behar duten horietakoak.

Denetarik. Gaur kontatuko dizkizuet 30 urte baino gehiagoko lan ibilbidean gertatu zaizkidan istorio beldurgarri eta dibertigarrienak; agertoki handi batean eta kalean, zezen-plaza batean eta kartzelan, ukuilu batean, telebista batean, komentu batean, taberna batean, ospitale batean, eliza batean, bainugela batean... Txarrenaren onena! Ordu beteko barrea eta dibertsioa bermatuta!

Iraupena: 60 minutu.



«Euskaldungak» (Euskarazko antzerkia)

TAULELA ANTZERKI TALDEA

ASTEAZKENEAN, EKAINAK 10

Aktoreak: Maite López eta Aroa Blanco.

Bi aktore hauek ez dute erronka makala bere gain, euskaldun zaharrei euskaldun berriak zuzentzea zergatik hainbeste kostatzen zaien argitzea, eta euskaldun berriek zergatik dioten halako beldur izugarria akatsak egiteari. Zer esango dute euskaldun berri batek eta euskaldun zahar batek euskarari buruz? Euskararekin duten harremanaz? Beren historiaz? Istorioa? Hrekin edo Hrik gabe?

Nondik hasi baina? Ba hasieratik! Pieza honekin Aroa Blanco eta Maite Lopez lehenengo aldiz igoko dira eszenatokira elkarrekin, euskal kulturaren eta euskararen mundu liluragarrian izandako abenturak eta harriabarrak kontatzeko.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 19:30.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.



Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxea.

Sarrera doan gonbidapenak aldeztu aurretik erreserbatuta, ekainaren 2az geroztik. Sarrerak erreserbatu ahalko dira Kultur Etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948870251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Euskararen eguna



LARUNBATEAN, EKAINAK 6

12:00etan 10 eta 14 urte bitarteko gazteendako ginkana.

12:30ean Mintzodromoa.

13:00ean Taloak eta bermuta Mortx1 DJarekin.

14:30ean Herri bazkaria.

15:00etan Haurrendako tailerrak La Crafeterarekin.

17:30ean Kalejira Eskartxa Txarangarekin.

20:30ean Eztitan erromeria.

Ekitaldiak Arkupeetan eginen dira.

Bazkaritarako txartelak www.sanguesa.es helbidean har daitezke

Antolatzailea: Bi Haizetara.

Juan Francés de Iribarren musika eskola



Banda txikiaren eta Eskolako bandaren kontzertua

EKAINAK 4, OSTEGUNA

Ordua: 19:30. **Lekua:** Eskolaren atzealdea, parkearen ondoan.



Fanfarrearen, orkestraren eta eskolako koruen kontzertua

EKAINAK 11, OSTEGUNA

Ordua: 19:30. **Lekua:** Eskolaren atzealdea, parkearen ondoan.

Eskolako brass band-en kontzertua

EKAINAK 12, OSTIRALA

Ordua: 19:30. **Lekua:** Dos Caballos taberna.



Eskolako Metalen taldeen kontzertua

EKAINAK 17, ASTEAZKENA

Ordua: 19:00. **Lekua:** Karmengo klaustroa.



Konboen kontzertua

EKAINAK 18, OSTEGUNA

Ordua: 19:30. **Lekua:** Eskolaren atzealdea, parkearen ondoan.

Big band-en kontzertua

EKAINAK 23, ASTEARTEA

Ordua: 19:00. **Lekua:** Zangozako Ikastola

Zangozako talde kulturalen jarduerak



Zangozako udal banda elkartearen udako kontzertua

LARUNBATEAN, EKAINAK 27

Bandak kontzertua eskainiko du "KANELA" garapen artistikorako zentroarekin batera. Bi taldeek tangoa, saltsa, pasodoblea edo bachata bezalako dantza musikak joko dituzte. Bandak rock, soul, pop eta swing talde ezagunen lanak tartekatuko ditu.

Ordua: 20:00.

Lekua: La Galería

Zuzendaria: Imanol Blasco

Antolatzailea: Udal Banda Elkartea..

Donejakue bidearen eguna



LARUNBATEAN, EKAINAK 27

Donejakue Bideari eskainitako jardunaldia. Undues de Lerda eta Rocaforte arteko tartea egina da, Zangozatik igaroz.

8:00etan autobusa egonen da parte-hartzaileak abiapuntura eramateko (Laubide/Sorospena), hornidura-gune bat, Santa Mariaren portadara bisita bat eta etapa amaiera Rocaforteko iturria, hamaiketako eta guzti.

Lehiaketak



ZAINDARIAREN JAIETARAKO LEHIAKETAK 2026

• **2026ko Zaindariaren Jaietako Kartel Lehiaketa**

Aurkezteko epea: ekainaren 1era arte, 14:00etan.

• **«Zangozako Hiria» Haur-literaturako Lehiaketa hitz lauz edo bertsoz**

Aurkezteko epea: ekainaren 9ra arte, 14:00etan

Oinarriak eskuragai Kultur Zerbitzuan edo www.sanguesa.es udaleko web-orrian



HENRIKE II.A ALBRETEKOA, «ZANGOTZARRA», XXXI. IKERKUNTZA- LEHIAKETA

Aurkezteko epea: ekainaren 30a (egun hori barne).

Oinarriak eta argibideak: www.zangotzarra.es

Antolatzailea: Henrike II.a Albretekoa Kultur Taldea.